




ITZALA

Perseguidos dokumentala (Eterio Ortega, 2004)

Iraupen osoa: 80 minutu



CENTRO MEMORIAL DE LAS
VÍCTIMAS DEL TERRORISMO
TERRORISMOAREN BIKTIMEN
OROIMENERAKO ZENTROA

MAILA

DBHko 2. zikloa.

HELBURUAK

- + Terrorismoak gure herrialdean egindako ekintza izugarriak identifikatzea, haren ondorioei buruz hausnartuz, eta onartzea indarkeria terrorista ez dela erailketarekin hasten.
- + Terrorismoaren biktimen testigantzak errespetatuz, haien sufrimendura modu enpatikoan hurbiltzea.
- + ETak mehatxatutako pertsona askoren errealitatea ezagutzea, bereziki bizkartzaina eraman behar izan zutenena.
- + Eskoltarekin bizitzera behartuta egon ziren pertsonen eta familien portaera baloratzea eta pertsona horiek aurre egin beharreko egoera eta erabakiei buruz hausnartzea.

GAITASUNAK

- + Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna; izan ere, ezinbestekoa izango zaizu jarduera egiteko.
- + Gaitasun sozial eta zibikoa; izan ere, biktimaren lekuan jarri beharko duzu hari egindako bidegabekeria ulertu ahal izateko, haren minarekin bat egiteko eta bizikidetza baketsuaren alde egiteko.

DENBORALIZAZIOA

120 minutuko modulu baterako pentsatutako jarduera, dokumentala osorik ikusten bada, edo 75 minutuko modulu baterako, 30 minutu inguruko zati bat bakarrik ikustea aukeratzen bada.

BALIABIDEAK

Perseguidos dokumentala (Eterio Ortega, 2004): osorik edo zati bat bakarrik ikus daiteke. Iradokitako jarduerarekin inprimatutako materiala, boligrafoak eta folioak. Arbela edo horma-irudi bat ere erabiltzea gomendatzen da.

Iradokitako zatiak José Luis Velaren historia jasotzen dutenak dira. Minutuak: 9.18tik 13.15era; 18.50etik 20.52ra; 23.09tik 25.17ra; 32.25etik 34.33ra; 38.16tik 39.30era; 47.24tik 51.18ra; 55.06tik 56.50era; 59.59tik 65.55era eta 67.08tik 68.43ra (<https://www.youtube.com/watch?v=rAwDKCDL1iE> bideoaren arabera).

EGILEA

Roncesvalles Labiano

IRADOKITAKO JARDUERA

Perseguidos (Eterio Ortega, 2004) dokumentala edo iradokitako zatiak proiektatu ondoren, irakasleak argiak itzaliko ditu, isiltasuna eskatuko du, ahalik eta giro lasaiena eta gogoetarako egokiena bilatzen saiatuko da, eta ikasleei zuzenduko zaie.

Itxi begiak, arnasan arreta jarri eta imajinatu eszena hau:

Egun batean, eskolara joan ondoren, beti bezala gosetuta, etxera iristen zara, eta zure aitag edo amak, herriari laguntzeko zinegotzi gisa aurkeztu eta kargurako aukeratua izan zenak, zurekin hitz egin nahi duela esaten dizu. Bere ondoan gizon bat dago, ez zaizu batere ezaguna egiten, baina irribarre egiten dizu. Jatorra dirudi. Etxeko sofan esertzen zara eta aitari edo amari entzuten diozu: "Seme, hau Jose da, hemendik aurrera asko ikusiko duzu hemen. Zenbait jenderi ez zaio gustatu zinegotzi izatea, gutun bat bidali didate eta, arriskuak saihesteko, Josek babestuko nau eta noranahi lagunduko dit. Nire itzala izango da, nik ez baitiot herriaren alde lan egiteari utzi nahi. Denok ohitu beharko gara gure bizitzan aldaketa batzuk egitera, baina badakit jada helduagoa zarela eta gauza horiek uler ditzakezula".

Testua irakurri ondoren, irakasleak folioak banatuko dizkie ikasleei, eta 10-15 minututan eta banaka, hausnartzeko eta honako galdera hauetara erantzuteko eskatuko die:

1

Zer uste duzu sentituko edo pentsatuko zenukeela zure aitari edo amari hau kontatzen entzutean? Pentsatu nolakoa izango litzatekeen zure lehen erreakzioa.

2


Egunen buruan, nola uste duzu sentituko zinatekeela mehatxatutako aita edo ama eskoltarekin etxetik irteten den bakoitzean? Agian amorrua, tristura, beldurra, lotsa, segurtasunik eza... edo, agian, segurtasuna, harrotasuna, gogobetetasuna...

3

Zertan uste duzu aldatuko litzatekeela zure familia-bizitza? Zer uste duzu faltan botako zenukeela etxean eskoltarik gabeko zure bizitza zaharretik?

4

Arriskua eta eskoltaren beharra saihesteko beste hiri urrun batera joatea familiarentzat aukera ona izan daitekeela pentsatuko zenuke?



FAXISTAK

Jose Luis Mela

Estanislao Amutxastegi

Juan Fernando Narciso

Manesa Melez

Juan Carlos Cano

Gemma Z

J. Antonio Pe

Kartel iraingarri eta mehatxagarria, gurutze gamatu baten gainean inskribatutako Andoaingo zinegotzi sozialista eta popularren izenekin. José Luis Velaren artxibo pertsonala.

Ondoren, ikasleei beren gogoetak taldearekin partekatzeko gonbita egiten zaie. Urrats hori errazteko, baliagarria izan daiteke arbela erabiltzea edo horma-irudi bat egitea lau zutaberekin —zutabe bat galdera eta gai bakoitzeko: lehen erreakzioa, sentimenduak eguneroko bizitzan, aldaketak eguneroko bizitzan, beste hiri batera joatea—, ikasle bakoitzak bere ideiak modu zehatzean idazteko.

Amaitzeko, taldea ondorio komun batzuetara iristen saiatuko da. Une horretan, irakasleak informazio hau parteka dezake haiekin:

1

ETAk 42.000 pertsona mehatxatu zituen kolektibo jakin batzuetakoak izateagatik.

2

3.300 pertsona eskolatuta bizi izan ziren Euskal Autonomia Erkidegoan 1990etik 2011ra bitartean. Gehienek 2 eta 14 urte bitartean eraman zuten bizkartzaina. Gutxienez bost bizi izan ziren horrela 20 urte baino gehiagoz. Asko politikariak eta enpresariak izan ziren, baina beste sektore batzuetan ere egon ziren eskoltatuak: kazetariak, idazleak...

3

Milaka erbesteratu edo desplazatu mehatxuengatik, hertsapenengatik, beldurragatik... Datu zehatza ezin da egiaztatu, eta hau estimazio bat da. BBVA Fundazioaren arabera, 157.417 lagunek alde egin zuten Euskal Herritik 1980 eta 2000 urteen artean.